

+ Anaitasuna

VI URTEA - N.º 62

Suplemento de la Hoja
ANAITASUNA de Guipúzcoa

Garagarrilla (7) 1959

Prensa katolikoaren eguna

Zeregin bat importantea dala ikusten dogunean, orduantxe ta orduantxe bakarrik lan egiten dogu gogoz beraren alde. Ez jaku gustetan, eginkizun txikiakaz bizitzea komplika deiskuen. Ezer egitekotan, naiago dogu, premiñako arazoetan, probetxu ta importantzia aundiko gauzetan jardutea.

Ain zuzen be, San Pedro egunean, orixe gomutarazo deusku Eleizeak eta eginkizun aundi bat ipiñi deusku begien aurrean: *Prensa Katolikoari* indarra emotea.

Gaur egunean, iñoiz baiño geiago, ideak movietan dabe mundua. Zelakoak ideak, alakoak izango dira munduko gorabeerak. Erri baten etorkizuna moldatuteko, ideakaz leundu bear da lenego bidea.

Asko dira, ideak zabaltzeko erak; baiña egokiena, indartsuena, errezena, lektorea da. Liburuen, periodikoen, errevisten lektorea. Kristiñau asmoak munduan zabaltzeko preokupaziño apurtxu bat daukonak, seguru segurutik interes aundia eukiko dau Prensa Katolikoa dala ta ezjala.

Euskalerriko Erdal Prensa Katolikoa Españia osokoagaz komparetan badogu, ondo gogozala esan geinke. Izan be, ez da aundia, Madrillek Bilbaori arlo onetan daroatson ventajea. Ogetamairu milloi errevista garaun argitaratuten dira urtean Bilbaon bakarrik. Euskeraz barriz, ez dot uste Bizkaia guztian eun milla errevista garauntxu agertzen direanik.


Dana dala, lan egin bear dogu danok, erderazko naiz euskerazko Prensa Katolikoaren azia edonon ereiteko. Ori gorabeera, ondo egongo da, euskerea maite daben guztieri verbatxu bi esatea.

Euskaldunak, izan gaitezcan errealistak. Gure erria beti kristiñau ta *euskaldun* bizi daitela benetan gura badogu eta logika apurtxu bat badaukogu, duda barik, zeredozer egin bear dogu Euskal Prensa Katolikoaren alde. Eta Prensa ori iñondik agertzen ez bada, edo pobrea bada, edo indarbakoa bada, alegiña egin bear dogu, gauzak beti olan jarraitu ez daien.

Zeri gagoz itxaroten? Edo uste dogu, Prensa ori, iñoizko baten, goizetik gabera sortuko dala? Zabalku daiguzan begiak demporaz, eta gaur egin geinkena, ez daigun itxi biarko, orduan beranduegi izan leiteketa.

Danok daukogu zeregin onetan zetan lan egin. Batzuk, Euskalerraren aurrean erantzunbear aundiagoa daukenak, eta diruz naiz gogoz aberatsak direanak, asko egin bear leuke arazo onetan. Dana dala, gauza aundia izango litzake, errevistatxu au illean illean artzen dozuen guztiok, asikeratik akaburaino pozarren eta ardura aundiagaz irakurriko bazendue, eta irakurrita gero, lagun baten bateri leiduteko emongo bazeuntse.

Berriatua



EMAKUMEAREN TZAKO

41

NESKATILLA POLITA TA ELEGANTEA: DOLAR BI

Cuba-ko gobernu barriak kontribuziñoa ipiñiko ei deutso gentearen arrokeriari. Soziedade kroniketan persona baten izena aita-tuteagaitik dolar bat pagan bear izango da; eta kontribuziño ori eun dolarrerarte eldu leiteke, izenaren aiboa nobletasun tituluren bat ipinten bada. Personearen edertasun fisikoa edo moralak azalduten badira, aia-bantzazko adjetivu bakotzeko dolar bat geiago ordaindu bear izango da, eta bost dolar fotografia bakotzeko.

Eginkizun onen aurrean, klase askotakoa izan da gentearen erreaziñoa. «El Diario de la Marina»-ren ustez, gobernu erreboluzionarioaren asmo ori periodikoen libertadearen kontra doa. Habana-ko goiko soziedadeko seiñora batek esan ei dau: «Zetarako batuko gara koktel bat zelebretako, gero periodikoetan gure izenak agertuko ez badira?» Beste seiñora batek: «Lege orregaz, Kantzerraren kontrako Aikartasuna ondatu egingo da. Dirua batzeko jaiak organizetan dituenen izenak, soziedade kroniketan agertzen ez badira, nok egingo dau lan orduan? Nok eukiko dau olan interesik» Beste batek: «Zetarako itxi diru pillo ederrak eskabide maietan, gero gure sakrifizioaren ordaiña ez artzekotan, eta gure izenak eta erretra-tuak periodikoetan agertzen ez badira?»

Gu, Jesusen verbakaz akordetan gara. «Ez daijala jakin ezkerreko eskuak, eskoiak egiten dauan limosnea» —esan eban bein Mai-xuak. Orregaitik, ondo dagoala uste dogu, Cuba-ko lege ori. Espaiñian tabakoari ipiñi deutse kontribuziñoa, Italian gatzari, orain Cuban arrokeriari.

Dana dala, auxe da guretzako importan-tea: Oitu gaitzala danok, beti egia esaten; deitu polita, benetan dan neskatilleari; dei-

tu gobernante zintzoa, direktore habilia, ziklista fenomeno, benetan dan gizonari. Egia beti, Espaiñian, Cuban eta edonon.

ORAINGO EMAKUMEAK, LENGOK BAIÑO GAZTEAGOAK

Afirmaziño au egia danentz jakiteko, gogoratu daiguzan emakume famadu batzuk, ziñe pantailletan agertzen direanak. Europako zineman, esate baterako, lenengo kategoriako ogei «izar» baiño geiago dagoz, berrogei urtera eldu edo urretu direanak; curen artean topetan doguz Ingrid Bergman, Anna Magnani, Vivien Leigh, Danielle Darrieux, Michele Morgan eta Alida Valli.

Zinema amerikanoa barriz, «zarrez» betarik dago; eurak dira, esatea lez, Hollywood-eko nagusi. Eun ta ogei protagonisten artean, ogetairu, berrogei urtera urretuten dira; euren artean Ava Gardner eta Lana Turner, emakume guztiz ederrak biak. Eta amazazpi, ondo igarota dagoz edade orretako arraiea. Danak agertzen dira oraindiño ziñeko amodiozko lantzetan. Barbara Stanwyck eta Rita Hayworth-egandik asita, Katharine Hepburn eta Olivia de Havilland-eganarte. Orain gitxi dala, begitu zer esan eban periodiko amerikano batek: «Hollywood-eko emakumeak guztiz ederrak dira, baiña edadez ondo izan letekez amumak.»

Olako komprobaziñoak edonon egin leitekez, Hollywood-era joan barik. Oraingo emakumeak lengoak baiño gazteagoak direala jakiteko, ez daukogu zetan atondu «Miss Amuma» konkursurik, Nortamerikan aurtan egin dan lez. Orretarako naikoa dozue, berrogei urteko zeuen ezagunak burura ekartea.

Euren aldetik, estadistikak be, konfirmatu egiten dabe, zelan edo alan, emen diño-

guna. Igaz, Italian, 350.000 emakume gitxi gorabehera ezkondu zirean; eurretarik 13.000 (kasik euneko lau) berrogei urte baiño geiago enkezan. Eta eunekobeste au gero ta gorago ei doa, batez-bere erri aundietan. Eta berrogei urtetik urre dagozanak kontuan artzen badoguz, orduan erresultadu arrigarriak ikusiko ditugu: Milan-en, esate baterako, 970 ezkontza egin zirean garagarri (julio) berrogetamazazpian, eta novia guztien artean eun ta bik (euneko amazazpik baiño geiagok) 35 urte ondo kumpliduta enkezan.

Zegaitik, emakume berrogeitarren gaztetasun ori? Jakitunen ustez, asko dira orren kausak. Kausa fisikoak eta psikologikoak.

Beste ventaja askoren artean, gaur egunean emakumeak len baiño lan astun gixiagi egiten dabe etxean, tresna elektrikoeri eskerrak. Orrezaz gaiñera, asko obatu dira oraingo kondiziño higienikoak, eta len baiño bizimodu altuagoa daroe Europa ta Amerikako familiarik geienak.


Baiña emakumearen aurrerakuntza one-

tan, aintzat artu bear doguz batez-bere kausa espiritualak. Ikaragarriak dira, arlo onetan emakume modernuak egin dituan irabaziak. Lengo «neska zarrak», esatea lez, mundutik urteten eben; bizitza sozialeko eginkizun eta pozaldieri agur egiten eutsen. etxeko edo eleizako lau orma artean sartzen zirean eta alaitasun bako monotonia legor baten igartuteko arrisku aundia euken.

Orain barriz, neskak, alperrik urteak aurrera joan, eginkizun barri asko dauke begien aurrean: emoiño barriak, experientzia barriak, errespontsabilidade barriak. Gero ta geiago dira, politikan, ekonomian eta edukaziño lanetan sartzen direan emakumeak. Erlegiñoak be apostoladuko ateak zabaldu deutsez, eta eurak pozarren eta gogoz bear egiten dabe zeregin eder orretan.

Emakume modernuaren bizitza espirituala. lengoarena baiño sakonagoa da, indartsuagoa da. Orregaitik, bere espiritua gaztetu egin da, eta bere gorputza be bai.

Longa



Txina-ko obispo zismatikoak Erromara?

Monsieur Vitus Chang Tsohuan-ek, Txina-ko obispo jaunak, orain desterruan dagoanak, deklaraziño batzuk egin ditu, Hamburgon, Txinako obispo zismatikoen gaiñean.

Bere ustez, Aita Santuaren baimen barik kontsagratu direan obispo orreeri be, Batzar Ekumenikora etorteko invitaziñoa bialdu bear litzakioe. Egikera onek, Eleizearen biozabalta-suna egiaztuko leuke. Gaiñera esan dau ze, berak ondo ezagututen dituala obispo frantziskano bi, eleizmaitasun guztiz aundikoak eta eritxi guztiz leialak daukezanak.

Txinako Eleiza Katolikoaren egokerea, penaza benetan dala esan dau, eta privilegio aundiak daukezala ministerioa ixillean egiten da-


ben sazerdoteak. Jantzi liturgiko barik eta labur labur esan leike mezea; eta kontsagraziñorako, edozein ogi klase erabilteko permisua dauke. Kristiñauak euren etxeetara eroan leike komuniñoa.

Beste frantziskano bat, Eleizako Doktore

Maiatzaren 9-an, Aita Santuak, Eleizako Doktore titulua emon deutso San Lorentzo Brindisi-koari. Orañarte bi izan dira San Frantziskoaren Ordenako Doktoreak: San Boaventura ta San Antonio.

San Lorentzo, Italiako Brindisi-n jaio zan amaseigarren gizaldian, eta Lisboan il 1619-an. Eskritura Santu ta Teologiako profesore sakona izan zan. Protestantismoaren indarra zapaldueteo kaputxino komentuak Austria ta Bohemia-ko frontieran fundatu zituan. Luteroarren kontra polemista itzala izan zan. Musulmaneri gerra egiteko, kristiñau ejerzituak kapellau ta animatzaile lez, lan aundia egin eban. Europako errege ta agintarien artean diplomatiko zuurra izan zan. Zortzi izkuntzatan guztiz ondo verba egiten eban. Frantziskano kaputxino'en Ordenea prudentzia ta santutasun aundiagaz gobernatu eban. Amabost liburu aundi itxi deuskuz, bere jakituri zerutarrak be-teak.

MUNDUAN ZEAR



ESPAÑIAKO PRENSA KATOLIKOA

«La Prensa de la Iglesia en España». Titulu onegaz argitaratu dau monografia eder bat Espaiñiako Eleizearen Estadistika ta Informaziōzko Ofiziñeak. Lan valiotsua, numernakaz eta egiakaz egiñikoa, laburra baiña interes aundikoa.

Ona emen, lan orren jakingarri urtenenak.

Publikaziñoen geografia

Madrille ta Bartzelona kenduta, errevis-tarik geienak Euskalerrian, Zaragozan, San-nderen eta Palentzian argitaratuten dira. Juneko irurogetazortzi errevisa, orreetan provintzietan agertzen dira.

Espaiña osoan, urtean publikaziñorik geien ataraten dabēn diozesiak onexek dira: Madrillek 23.971.140 errevisa garaun, Bilbaok 22.621.000, Bartzelonak 15.494.995, Zaragozak 8.883.500. Kasik 71 milloi errevisa garaun argitaratuten dira urtean lau urinagusi orreetan. Onek esan gura dau, Espaiña osoko errevisa guztien artean euneko 72, lau erriotan publiketan direala.

Errevisten numerua

Espaiñiako Prentsearen Anuarioak dakarren lez, 1957-an, naziño osoan, 1.768 errevisa diferente argitaratuten zirean. Eurretarik ia erdiak —847 titulu diferente— Eleiza Katolikoaren dira.

Espaiñiako errevisa guztiak —cleiztarrak eta osterantzekoak— lau milla seireun bana garaun ataraten ditue batez beste. Eleizearen publikaziñoak, eurak bakarrik, promedio altuagoa dauke, sei milla seireun ta larogeña garaun argitaratuten ditue-ta. Osterantzeko errevistak Eleizearen kontrolpean ez dagozanak, batezbeste baixuagoa dauke: bi milla zazpiren bana geronu. Onek esan gura dan, vublikaziño katolikoak, besteak

baiño zabalkuntza ta ugaritasun geiago daukela naziñoan.

Publikaziñoen indarra

Asko dira Eleizearen publikaziñoak. Baiña ba ete dago proportziñorik euren numeru ta indarraren artean? Egia esateko, ezetz uste dogu.

Edozein kioskotara joaten bagara, an dagozan errevisen artean, Eleizearen publikaziñoak gitxi dira izan —erdira be ez dira eltzen—, eta saldu, osterantzeko errevistak baiño iru bidar gitxiago saltzen dira. Geienetan, errevisa katolikoak ez dauke kategoriarik. Ori dala-ta, ez dira saltzen toki publikoetan, suskriziño bidez baiño.

Eleizearen 847 errevistetatik 99 bakarrik (13 %) publiketan dira astero edo amabosterik amabostera, eta numeru onetan sartzen dira parrokia ta diozesietako orritxuak, irakurle gitxidunak eurak.

Osterantzeko errevistak, Eleizearen kontrolpean ez dagozanak, geienak beñik bein, astean astean agertzen dira. Urtean dabēn bakotxean tirada aundia euki ezarren, sarri agertzen direan lez, eta presentaziño ohea eta atraktivu geiago danken lez, euren indarra ta influentzia, errevisa katolikoena baiño askoz aundiagoa da. Emen be ez dago proportziñorik numeru ta indarraren artean. Baiña oraingoan indarraren alde.

Illuna ta argia

Estadistika ta Informaziñoko Ofiziñearen uestez, publikaziño katolikoak, batez-bere sarri urtetan ez dabēnak —eta euneko 87 olakoxeak dira—, influentzia gitxi dauke publikoaren artean.

Zegaitik indar eskas ori? Motivu askogaitik. Emen ez doguz motivu guztiak esango.

Baiña ondo egongo da, printzipalenak esatea. Gure errevisa geienak, superfizialak dira, segurantzak bako informaziñoa emoten dabe, eskribikeran eta presentakeran teknika gitxi darabile, zentzun periodistikorik ez dauke.

Gauzak olan izanik, ezin geintek ez arritu, errevisa katolikoak influentzia gitxi badauke, eta gente asko Eleizearen voza entzun barik geratuten bada. Eta influentzia ori oraindiño urriagoa egiten da, errevisen arteko interferentzia, ikaragarria dalako, etxe baten igual ez dakit zenbat errevisa klase batera sartzen dira-ta.

Ori gorabera, gauza onak be ba-dagoz prensa katolikoan, eta ba-dankogu optimistak izateko motivurik. Ia eun milloi errevisa garaun sartzen dira urtean Espaiñiako familietan. Ez da ventaja makala. Asko dago eginda.

Baiña orain beste gauza bat falta jaku: organismo zentral bat, naziñoako publikaziño guztieri laguntza tekniko, grafikoa ta literarioa emoteko, euren influentzia sakanagoa izan daiten. Ainbat ariñen Prensa Katolikoaren Agentzia indartsu bat bear dogu, gauzak aurrerantzean obeto joan daitezkan.

Euskal Prensa Katolikoa

Euskerazko publikaziñoak, numeruz guztiz gitxi dira, eta indarrez oraindiño gitxiago. Zegaitik ori? Batzuk gobernuari botetan deutse erru guztia. Baiña ori ez da egia. Geu gara errudun. Geu. Eskribitzailleak eta irakurleak. Danok.

Bizkaian beintzat, gitxi, oso gitxi dira euskeraz idazten dakienak. Eta ulertzeko moduan idazten dabenak, askoz gitxiago. Eta

errevisitan idatzi gura dabenak, oraindiño gitxiago.

Eskribitzaillearen zeregiña guztiz penaza da. Ixilla, eten bakoa, gogorra, naigabez eta eskergaiztoz bete. Errezago da, gozoago da, kafe bateko mai odoan Euskalerrriaren alde orderaz jardutea.

Gauzak olan izanik, ez gaitezkan arritu, Bizkaian beiniñ bein, ia ia euskal prensarik ez badaukogu. Eskribitzaille batek edo bik, eurak bakarrik, zelan atarako dabe gauza onik ba? Diru barik, laguntza moral barik, idazlagun barik egin leiteke valioko ezer ala?

Noizarte egongo gara olan? Ez ete dauko egokera onek erremediorik? Euskalerrrian bape direanak, egiten dabe gauzok aldatuteko alegiñik? Edo euskera idatziak ez ete dauko importantziarik euskaldun kristiñauentzat? Ez geunke euki bear geuk-bere, erdaldunak lez, Euskal Presearen Agentzia indartsu bat? Edo Euskal Periodista Eskola on bat?

Irakurleak, euren aldetik, leiduten ete ditue Eleizearen euskal errevisak? Gauza bat da errevisak arteza eta beste bat irakurtea. Euskalerrrian ez daukogu, Madrillen lez, Estadistika ta Informaziñozko Ofiziñiarik, euskaldun irakurleen erreaziñoa zein dan jakiteko.

Nik neuk uste dot, idazten dan baiño askoz gitxiago irakurten dala, eta etxeetan sartzen direan errevisa garaun asko, leidu barik geratuten direala.

Negaragarria da benetan Euskalerrriko errevisa katolikoan bizikerea, batez-bere Bizkaian. Erlegiñoagaitik eta euskereagaitik alegin geiago egin bear geunke danok. Batzuk idazten, beste batzuk diruz laguntzen, guztiok irakurten.

Ibieta



Publikaziño katolikoak, gitxienez, iru klasetakoak izaten dira:

a) *Informaziño generala* emoten dabenak.—Oneetariko publikaziñoak, konfesiño bako edozein periodiko lez, munduko gorabeerak, bai erreligiosoak bai profanoak, ekarten ditue, eta euren gainean eritxia emoten dabe; baiña komentarioak egikeran, Eleizearen irakaspenak beti kontuan eukiten ditue.

b) *Formaziño katolikoa* zabaltzen dabenak.—Oneetariko publikaziñoak (errevisak geienetan), komentario geiago edo gitxiagogaz, informaziño katolikoa bakarrik edo ia bakarrik ekarten dabe. Beste publikaziño batzuk barriz, idea, devoziño naiz bizibide determinadu batzuk zabaldu gura izaten ditue kristiñau zintzuen artean.

c) *Penetraziño apostolikoa* asmozat daukenak.—Oneetariko publikaziñoak, misiño arduraz beteak, badaezpadako kristiñauen artean militanteak sortu eragin gura ditue, edo erligiñotik apartauta dagozanak Eleizara ekarri, edo siñismenik ez daukanak federako irabazi.

Klasifikaziño au, orregaitiño, apurtxu bat nasaitxu artu bear da, goian aitatu doguzan iru asmoetako zerbait publikaziño guztiak eukiten dabe-ta.

Bertsolariak Bizkaian

Poztu be asko poztu giñean igazko bertolari txapelketa ikusiaz. Ainbat urtean ixillik zirean urretxindor jatorrak, Bilboko Arenalean batuta kantari ikusi genduzanean, zelan ez poztu biotza? Baita begiak negar be! Euskaldunak benetan bere errailetan daroala bertolari-kutsua gero!

Bizkaiko bertolari txapelketa barri baten aurrean gure lagun zintzo Alfonso Irigoien-egana joan gara preguntatxu batzuk egin naiean.

—Igaz arrituta gelditu giñean goizetik gabera zelan eratu zan bertolarien sariketea ikusiaz. Esango ete deuskuzu zelan sortu zan?

—Bizkaian bertolaria aspaldiko urteetatik apurtxo bat baztatu egin izan da, bearbada bere izkerea ontzat artu eztalako. Ez, ostera, erritarren artean, ezpada dotore-kutsu geiago eukienen artean baiño. Orrek, duda barik, galarazo egin eutsozan euskereari Bizkaian alderdi orretatik etorri eikiozan indar aundiak, beste alderdi batzuk geiago edo gitxiago zaindu bazirean be. Bertso kantauak izugarritzko indar aundia izan dau eta dauko euskaldunen artean, beste edozein literaturak baiño askotaz geiago; eta indar ori euskerearen bizi sustraitsurako aprobe txatu bear dogu, euskereak bizirik eta sendo iraun dajen gura dogunok, bizirik eguneroko berbetan, eta ez bakarrik iñok edo oso gitxik irakurten dituezan liburuetan. Iparagirre bera be zer izango zan, Euskalerrian bertsoak izan ezpalira? Euskaldunen biotzetan eragin eban-sentimentu bizia, ezaban ezelan bere eragin aal izango, bertsoen bidez izan ezpalitz. Nok eztitu ezagututen gaur egunean be Iparagirre-ren kantak? Esango neuke erdaldunen artean be asko dagozala ezagutu eta kantetan dituezanak.

Igaz bertolari batzuk ezagutu genduzan, eta gaiñera sasoi aretan Paris-en be izan zan txapelketa nagusi bat; eta pentsau genduan oso egokia izango zala Bilboko jaietan txapelketa bat egitea. Ayuntamentura joan giñean, bear zirean baimenak eskatu genduzan, eta martxan

parau zan guztia. Diputaziñoak kopa bat emon eban Bizkaiko txapeldunarentzat, Bizkaiko eta Bilboko Ahorro-kaxak beste bana, Bilboko aberats batzuk sariketarako dirua. Ezagututen genduzan bertolari guztieri dei egin, eta gertau zan. Bilboko egunerokoetan adierazo zan eta baita Donostiako erradioan be; eta izugarritzko gente asko batu zan Arenalean.

—Pozik gelditu ziñean Arenaleko ekitaldi aregaz?

—Gentea oso pozik gelditu zan, eta sariak irabazi ebezanak pozago oraindiño, zeinbat eta saria aundiago ainbat pozago. Ordurik ona, bertolari batzuk beintzat agiri agirian egin daben aurrerapidea siñistu be ezin lei. Ia ogei urtean ixillik egonik, barriro asi zirean kantetan eta amesetan. Eta laster jakin genduan, gaiñera, bertolari gelagoren barri be, batzuk gazteak, eta baita bertolari izateko gogoak daukienak be.

—Aurten zer asmo dago?

—Aurten, Bilbon bakarrik egiteko bertolari geiegi egonik, Bizkaia bost zatitan partidu dogu: eta toki bakotxeko txapelduna, eta baita igaz Bizkaiko txapeldun gelditu zana, Bilbon egingo dan txapelketa nagusira joango dira. Beraz, toki oneitan egingo da: *Urkiolan* San Antonio egunez, Bagillaren 13-an, goizeko amabiak aldean. *Mungian* San Pedro bezperan, Bagillaren 28-an, goxeko amabietan. *Berneon* San Pedro egunean, Bagillaren 29-an, goxeko amabietan. *Markiñan* Karmenetan, Garagarri-llaren 18-an, goxeko amabietan. *Zeanurin* Andra Marietan, Agustuaren 16-an, arratsaldeko seiretan. Eta azkenik Bilboko txapelketa nagusia Agustuaren 30-an, arratsaldeko bostetan. Sariak, erri bakotxeko txapeldunari milla peseta eta toki bakotxeko Ayuntamentuaren kopea. Gaiñerako guztieri bosteun peseta bakotxari. Bilboko sariak askotaz be aundiagoak izango dira, eta Diputaziñoaren kopa nagusia eroango dau Bizkaiko txapeldunak. Eskerrak emon bear deusaguz Bizkaiko ahorro-kaxeari berak emon dauelako dirua errietako sari an-

dienetarako eta baita Bilboko sari baterako.

Gaiñera ogetalau orrialdeko bertso-liburu-txo bat egin dogu Bizkaiko bertso batzukaz, batzuk zarrak eta oso ezagunak eta beste batzuk barriak. Amazortzi milla ale egin doguz zabal-tzeko errietako txapelketetan. Eta zelan dato-rreren urteko maiatzerako Euskaltzaindiak Eus-kal-sariketa bat amar urtetik amairu urterako neska-mutil bizkaitarrentzat iragarrita daukan, bertso-liburu arek, egingo direan esamifeta-rako balio izango dau. Sariketa orretara doa-zenak buruz ikasi bear izango dabez bertso guztiak, edozein soñu erabilirik; eta esami-fietan, beste gauza batzuen artean, bertsoon gaiñean itanduko da.

—Zein erritan egingo da lenengo?

—Urkiolan, San Antonioetan. Danok dakizue egun orretan baserritar eta kaletar asko ta asko batuten dala Urkiolan. Eztago dudarik euskalduntasunarentzat indarvide aundia izan-go dala.

—Bertsolari asko ete da Bizkaiko erriak zear?

—Naikoa. Kontuak atera bost txapelketa egi-tea erabagi izan dala, Bilboko txapelketa na-gusia egin baiño leen. Eta leen aipatu dogun bertso-sortea neska-mutil askok buruz ikasten badabe, bertsolarikumeak be laster egongo dira ugari.

—Laguntza ona arkitu dozu bizkaitarren ar-tean? Eta gauza onetarako zaletasunik?

—Zorionez bai. Igaz be sarietarako dirua jaso izan zan. Zaletasuna, euskaldunen artean dago izugarria. Erregetan Arriaga teatroan Eus-kaltzaindiak urtero egin oi dauen jaialdia pres-tau genduanean, igaz leenengo irurak gelditu zireanak imini genduzan programan agur bat egiteko, eta errietatik asko ta asko beren be-regi bertsolariakaitik etorri zan.

LAGUNARTEKO MEZEA

(Misa dialogada en Vizcaíno)

Aita Imanol Berriatuak egiña

Bigarren ediziñoa

Foilletu bakotxa: 3 peseta — Ogeitik gora 2,50

SALGAI:

Librería Verdes, Correo, 7, Bilbao
PP. Franciscanos, Bermeo, Vizcaya

—Ez al dago, Bizkaikoak bakarrik barik, Eus-kal-erri guztiko bertsolarien artean konkurso oneek egiteko asmorik?

—Oso gauza ederra izango litzake. Baiña ori egin baiño leen, Gipuzkoan eta Nafarroan txapeldunak aterateko. Bizkajian egin doguna bera egin bear leukie; eta orduan alderdi guztietako nagusiak batu aal izango litzakez indarrak neurtuten ia nor Euskal-erriko burua izan. Mu-gaz andikoak egin dabe aurtan txapelketea. Ba-dirudi Euskal-erriko ertzetan ari gareala, baiña biotzean erdian ez. Eta izkuntza kontue-tan modak erditik alboetarantza joan oi dira. Gipuzkoan egingo balitz orain, golpe izugarria izango litzake euskerearen alde eta bildur bar-rik *euskaldun* berbea eta *bertsolari* berbea si-nonimo-kutsua artzen asiko litzakez.

Artikulu au idatzita gero jakin dogu, Gi-puzkoako Aginagan bertsolari konkursu eder bat izan dala.

—Akats eta oztoporik ete da orretarako?

—Nik eztot uste oztoporik dagoenik; berba baiño egin gelago egiten da.

—Bizkaiko bertsolari-sariketa onek betiko ja-rraitzeko asmoa dauka?

—Gure gogorik aundiena orixe da. Eta Jaun-goikoaren laguntasunagaz egingo da.

«ANAITASUNA» DE VIZCAYA

DIRECTOR:

P. Manuel Berriatua

PP. Franciscanos, Bermeo, Vizcaya

ADMINISTRADOR:

P. Teófilo Arzallus

PP. Franciscanos, Zarauz, Guipúzcoa

Irakurri Bizkaiko ANAITASUNA

Eskatu Zarautzera

Urte beteko suskriiziñoa: 12 peseta

—Zorionak emon bearrean gaukozuz bertsolari guztien izenean zeu izan zarealako su emoilte eta gauza guztiak atondu dozuzana. Milla esker guztion izenean.

Ete daukozu ezer ANAITASUNAREN irakurleentzako?

—Eskerrak emon zuzendari, idazle eta irakurleeri eta bertso bat kantatu.

Euskal lurreen jaio giñean

Eskerrak Goiko Jaunari;

Euskaldun eraz bizi nai dogu.

Zor deusagula amari.

Euskeraz esan gurako geunskio

Agurra guk munduari.

Eta euskaldun zeruan sartu

Bertso barriak kantari.

Eskerrik asko Alfonso zure leialtasunagatik. Zeu be bertsolari goien egin zatxakuz. Eta guk guztiok ikasi daiguzan erantzun oneitan. Irigoienek esan deuskuzan egi ederrak. Bizi bedi gure artean ain gure dogun bertsolari-kutsu au.

Enbeita'tar Kepa

Euskal sariketea amar urtetik amairu urterako neska-mutil Bizkaitarrentzat

1. Euskaltzaindiak sariketa bat iminten dau Bizkaiko neska-mutillentzat. 1960-gko. maiatzean egiteko, adierazeko dan egun batean. Izenak bialtzeko epea amaituten dan orduan, amar urtetik amairu urtera izan bear dabez. Zimentarriak oneik dira.

2. Sariak izango dira: Leenengoa milla pesetakoa, eta amazortzi sari bosteun pesetako. Euskaldun aberatsak emoten badabe orretarako dirua, eun eta berrogeta-amar pesetako sariak iminiko dira gaiñerakoentzat. Sariez gaiñera aipamen bereziak egin aal izango jakiez nabarmenduten direaneri, eta baita neska-mutilak gertetan dabezaneri be, diploma dotore batzuk emonik.

3. Sariketea esamiña bat euskeraz egiñik erabagiko da, eta gaiak izango dira: 1. Kristiñau dotriña. 2. Bizkaiko erri-bertso-sorta bat, Euskaltzaindiak argitaratu dauena. Buruz ikasi bear izango dabe edozein bertso-soñu erabillirik. 3. Gura daben ipuin bat idatzi bear izango dabe buruz. Orretarako, "Abarrak", Euskaltzaindiak argitaratu eban ipuin-sorta E. Bustinza-rena, iminten da eredutzat, eta ango ipuin bat edo beste edozein tokitan ikasiriko bat aukeratu lei. 4. Bakotxa bizi dan erriaren gaiñean zerbait idatzi. Erakusbide modura gai batzuk emoten dira, libertade osoagaz erabili aal izango direanak, bai zuzenean edo bai zearka, eta guztiak edo batzuk bakarrik: a) Elexea, b) Erria, d) Baserriak, e) Fabrikak, f) Dendak eta merkataritzea, g) Arrantzua, h) Labrantzea, i) Gentea eta oiturak, j) Bidaje batean sentidu doguna, eta abar. 5. Domingo Agirre-ren "Kresala" novelea iminten da liburu irakurgarria legez batez be idazteko oiturea artzeko, baiña ezta ezer itaunduko bere gaiñean.

4. Batzarra Euskaltzaindiak izentauko dau, egingo dan eguna adierazoten danean

5. Izenak 1960-gko. aprillaren 15-erarte artuko dira Euskaltzaindiaren etxean (Academia de la Lengua Vasca-Ribera, 6-Bilbao). Izena, deitura bi, bizilekua eta jaioteguna adierazo bear dira.